

ARRAKASTAZ HIL

GOTZON LOBERA

ABOKATUA

ETA EUSKALTZAIN URGAZLEA

Euskararen biziberritze prozesuaren egungo egoerari buruz dihardudala, aitortu nahi dut orain dela hogeitun urte gairiditutzat jotzen nituen erronkek gaur egun bizi-bizirik dirautela, ia-ia lehen bezala eta arlo batzuetan gordinago. Ikuspegi horri eusten ahaleginduko naiz.

Izan ere, euskal gizartea Europako eta ludiko gizarterik ustez aurrerenetakoa izateak euskalduntasuna ikoltzen dihardu: egur ikolak kanpotik itxura ona du, baina haren barrua uzkurra da. Gizarte- eta ekonomia-arrakastak hil gaitzake euskaldun gisa. Horrelakoetan, gaitzaz konturatzerako, osabideak lan gaitza du gaixoa osatzeko. Horixe jazotzen ari da belaunaldien arteko transmisioarekin.

1. TRANSMISIOAREN GEROA

A. FAMILIAREN BARRUKO HIZKUNTZA-TRANSMISIOA

I. Familietako belaunaldien arteko transmisioa ez dago ziurtatuta ohiko familietan

Alde batetik, esan behar dut ezen, bikotekide biak erdaldunak badira, gurasoengandik seme-alabenganako hizkuntza erdara dela: espainiera Pirinioetatik hegoaldera, eta frantsesa Pirinioetatik iparraldera. Hori dela eta, etxeko belaunaldi gazteen hizkuntza erdara da.

Beste alde batetik, bikotekide bat euskalduna bada eta bestea erdalduna, bikotekideen arteko harreman-hizkuntza erdara da. Orduan, seme-alabek gurasoei hartzen dizkieten hizkuntzak, kasurik onean, euskara eta erdara dira.

Ez dakigu zehatz-mehatz zein den hizkuntza bakoitzaren trinkotasuna seme-alabengana hizkuntzak heltzen

direnean, zein ingurumaritan erabiltzen den hizkuntza bakoitza, zein den seme-alabekin denbora gehien ematen duen gurasoaren hizkuntza, horixe baita erabakigarria. Adibidez, bikote misto bateko guraso euskalduna bada seme-alabekin denbora gehien ematen duena, ume horiek euskara natural izango dute euren bizitzan, baldin eta guraso horrek euskaraz egiten badie, jakina. Ostera, seme-alabekin denbora gehien ematen duen gurasoa erdalduna bada, ume horien hizkuntza naturala erdara izango da.

Hirugarren, guraso biak euskaldunak badira, baldin eta haien harreman-hizkuntza euskara bada, haiengandik seme-alabenganako hizkuntza euskara da, baldin eta gurasoek euskaraz etxetik badakite edo, arrazoia edozein delarik ere, gaztaroan euskararekin jabetuta, euskaraz badihardute. Kasu horretan bakarrik gertatzen da euskara bakarria izatea gurasoengandik seme-alabengana igortzen den hizkuntza. Adibide bat ekarri nahi dut hona esan dudanaren argigarri: arnagune gertatzen den herri bateko eguneango bizimoduan euskaraz diharduten gurasoen ohiko hizkuntza euskara dela onartu ahal dut, baina gaitz ikusten dut hori horrela denik etxeko hizkuntza erdara eduki eta D ereduan ikasitako bikote baten kasuan. Hau da, arnaguneetatik kanpoko bikotekideen arteko harreman-hizkuntza ez dago euskaraz jakitearen mende bakarrik. (Beharbada, lehenengo eta bat, zehaztu beharko genuke zer den euskaraz jakitea). Jakitea ezinbestekoa bada ere, hori ez da nahikoa. Baliabideak behar ditu

hiztunak eguneango premiak asetzeko: hiztun horrek matematikako ariketak euskaraz egin ahal baditu ere, ez badaki bere barruko emozioak eta sentimenduak azaltzen, euskara ikasgelako jakite-hizkuntza da, hor dago zokoratuta, eta ez du lekurik ikasgelatik kanpoko bizimoduan; areago, irakaskuntzako zentroan ere erdara da ikasleen arteko harreman-hizkuntza.

II. Familietako belaunaldien arteko transmisioa are zailagoa da gaur egungo familia-moldeetan

Hasieran esan dudanez, arrakasta ekonomikoak eta arrakasta sozialak egunean-egunean ikoltzen dute euskal arbola. Egungo familia-moldeetan, generoak ez du, nire ustez, eraginik hizkuntzaren transmisioan, bai, ostera, familiaren egoera ekonomikoa ona izateak eta familiak guraso bakarrekoak izateak. Horri darioenez, guraso biak euskaldunak izan eta haien ohiko harreman-hizkuntza euskara duten bikoteak aztertuko ditut.

Ilido horretatik, konturatzen gara bikote euskaldun ekonomikoki arrakastatsuetatik % 97an (% 100 ezin daitekeelako erabili estatistikan), bikotekide biek lan egiten dutela. Jazoera horrek, ezinbestean, ekarri ditu gurasoak umeak ume-zaintzaileen eskuetan edo haurtzaindegian uztera sein-seinetatik. Eta hortxe dago koska.

Errealitateak dioskunik, ume-zaintzaileak norbanakoak direnean, edo umearen gurasoen gurasoak dira edo kanpoko zaintzaile bat hartzen dute

umearekin arduratzeko. Aitaita-amamak euskaldunak badira, transmisioa ez da eteten; oster, aitaita edo amama erdal-duna bada, eta biok zaintzen badute umea eta aitaita-amamen arteko harreman-hizkuntza erdara bada, umearen hizkuntza naturala ez da euskara izango. Kanpoko zaintzailea denean, errealitateak diosku ezen oso zaintzaile euskaldun gutxi dugula, berriro ere arrakasta ekonomikoak eraginda. Horrela, zaintzailea erdal-duna bada, zaintzapeko umearen hizkuntza naturala erdara izango da, eta horrelaxe heldu gara egoera itxuraz ezinezkoa dena: guraso euskaldunak eduki arren, umearen hizkuntza naturala erdara izatea. Baten batek esan dezake gurasoak umearekin daudenean euskaraz mintzatuko direla. Egia. Demagun hori. Egin dezagun orain ariketa bat orduak zenbatzen: gurasoak etxetik goizeko 8etan joaten badira eta arratsaldeko 5etan itzultzen badira eta gurasoak umearekin arratsaldeko 5etatik 9ak arte badaude (uste dut eskuzabala naizela euskarari ematen diodan denbora-rekin), hortik kontuak erraz atera daitezke.

Beste horrenbeste esan deza-kegu aitaita-amama eta izeko-osaba ezinduen zaintzaileen gainean. Kasurik gehien-gehienetan, erdaldunak dira gure aurrekoen zaintzan dihardutenak, euskaldunok zeregin hobeak eta ekonomikoki etekintsuagoak egiten dihardugulako. Eta horrelaxe jazotzen da hiru belaunaldien arteko hizkuntza-transmisioa etetea. Zaintzaileak ematen du denbora gehien gure aurrekoekin. Gu, kasurik onenetan, egunean-egunean joaten gara bisitan ordubetez. Horrenbesterekin, aurreko

euskaldunak, seme-alaba euskaldunak dituztenak, ilobenganako hizkuntza-transmisioaren katetik desagertzen dira. Horrelakoetan ez da euskara bakarrik desagertzen, ezpada aurrekoen jakituria ere, eta ez doa hurrengo belaunaldietara. Euskal arbola ikoltzen doa.

Etxeko langileen gainean dihardugula, kontu honi erreparatu beharko genioke. Askoren ustez, kontu hutsala izan daiteke, baina etxeko langileak erdaldunak izateak badu eraginik transmisioaren katean. Horrela, guraso euskaldunak etxeko langile erdaldunei aginduak erdaraz ematen dizkietenean seme-alaben aurrean, erdara sartzen dute zeharkako harreman-hizkuntza gisa seme-alabentzat. Horrenbestez, gurasoak ez dira seme-alaben euskararen erreferente bakarrik. Kontua areagotzen da kasu honetan: seme-alabak nerabeak diren aroan. Gurasoek etxetik goiz irten behar dutelako, aginduak ematen dizkiete seme-alabei, azkenok aginduak eman diezazkieten etxeko langileei. Hortxe dugu erdara etxera sartuta etxeko belaunaldi guztietan. Orduko, erdara sartuta egon da eskolan, lagunartean, jolasetan, gailu elektronikoetan.

Umeak norbanakoek zaindu beharrean haurtzaindegietara bidaltzen direnean, berriz, badugu egoera bitxirik. Horri dagokionez, arnaguneak hartu nahi ditut gogoan. Izan ere, arnaguneetako eskola txikiak hezkuntza-sistemaren barruan sartu zirenean, langileen eskubideak gailendu ziren umeen hizkuntza-eskubideen kalterako: “bake soziala” deritzote horri.

Hori egia da, baldin eta gizartea langileek bakarrik osatzen badute; bestela, ez. Zer jazo da, bada? Azal dezagun kontua adibide ulerterraz batekin: Bizkaiko arnasgunea den 700 bat bizilaguneko herri bateko eskola txikiko zaintzaile batek bertoko euskaraz jardungo du hango umeekin; gero eta behin, etxeko euskara luzatu egiten du eta umeen harreman-hizkuntza euskara da; horixe da naturala umeentzat. Hala ere, arnasmune horretara zaintzaile euskaldun ikasi bat, hango euskaraz ez dakiena, joaten bada umeak zaintzera, umeok ez dute edoskiko arnasmuneko mama gozotik; horrenbesterekin, denbora igaro ahala tokian tokiko euskararen, etxeko euskararen bizi-indarra ahulduz joango da. Eta horrek zuzenean eragiten dio transmisioari.

B. ESKOLA EZ DA ETXEA

“Jostuna jostera, okina labera” dio esaera zaharrak. Bizitzaren eremu guztietan zaindu beharreko jakituria zaharra da, besteak beste, irakaskuntzan. Izan ere, irakaskuntzak ezin du ordeztu familia, ezpada osatu. Gurasoek guraso-beharra egin behar dute; ez dira seme-alaben lagunak; ez dira aro berekoak; ez dira ikuspegi berekoak. Era berean, irakasleak ez dira ikasleen lagunak; ez dira haien gurasoak (odolez lotuta ez badaude, jakina).

1980ko hamarkadan jorratu zen bidea, irakaskuntza euskalduntzekoa, nire iritzian, bide zuzena izan zen; betiere, eskolari eratziki genion berari ez zegokion eginkizuna: gizartea euskalduntzea. Hain

zuzen, gizartea euskalduntzeko egundoko garrantzia du irakaskuntzak, baina familiarik du leku giltzarria hizkuntzaren transmisioan, norberaren bizitzako eremurik garrantzitsuenak betetzen baititu: emozioak (poza, tristura, herra, maitasuna, gorrotoa...) eta pertsonen arteko eguneago harremanak.

Horrela, euskaraz etxetik ez dakiten ikasleetatik gehienek ez dute euskara lehen hizkuntza, harreman-hizkuntza, hizkuntza natural. Horrek itaun hau egitera nakar: zergatik da erdara D ereduan eskolatutako ikasle jatorriz erdaldun gehienek harreman-hizkuntza? Arrazoia, nire ustez, agerikoa da: erdarekin dituzten harremanak askozaz sarriagoak direlako euskararekin dituztenak baino. Ikasleonen sein-seinetako hizkuntza erdara da; haurtzaroko olgeta-hizkuntza behinena erdara da; nerabegaroko harreman-hizkuntza nagusia erdara da; gaztaroko lehenengo harreman-hizkuntza erdara da; bikotekideok, D ereduan ikasiagatik, euren artean dituzten harremanen hizkuntza naturala erdara da. Horretara ezker, gaitza da bikotekideen etxeko hizkuntza naturala euskara izatea, nahiz eta seme-alabengana jotzen dutenean euskaraz egin — oro har, esaldi laburrak, maiz berba batekoak—. Transmisioa hori baino askozaz gehiago da.

Hala ere, euskaraz jakin arren euskara hizkuntza natural ez dutenek uste dute euren seme-alabek euskaraz egingo dutela D eredura bidaltzen dituztelako. Hori kasurik onenean. Enparauetan, guraso horiek ez dute ardura berezirik

euren seme-alaben euskalduntzearekin. Itaun latza da, baina egin beharrekoa: zergatik darabilte erdara euren arteko harremanetan etxetik jatorriz erdaldunak diren euskaldun ikasiek euren eguneango bizimoduan? Arrazoiak asko izan daitezke, baina niri bat-batean burura datorkidana gaitasunik eza edo behar besteko gaitasunik ez izatea da.

Betiere, ez nuke atal hau amaitu nahiko esan barik nik sinesten dudala eskolak bere lana ondo betetzen duela: irakaskuntza-arloa. Beste kontu bat da ea eskolak familia ordeztu behar duen. Nire ustez, ez: ez euskararen aldetik, ez gizarte-ikuspegiaren aldetik.

2. TRANSMISIOA ETA ERABILERA

Transmisioa eta erabilera ezinbestean daude lotuta. Belaunaldi bereko kideen artean erabiltzen ez den hizkuntza ez da belaunaldi batetik bestera igarotzen. Kontuan hartzen badugu hizkuntza gizakion arteko komunikazio-tresnarik behinena dela, norberak hizkuntza bat jakinagatik ez badu erabiltzen, hizkuntza hori ez da izaten, ez da existitzen: hizkuntzak bere izatea galdu du.

Buruan ezkutatzen den hizkuntza ugertu egiten da; ez erabiltzearen puruz lotu egiten da. Beharrean eten barik jardun behar du biziko bada. Ereku jakin batean erabiltzen ez den hizkuntza haren hiztunek hura galdu dute ereku jakin horretan.

Norberaren barrenengo eremuan erabiltzen ez bada, azkenean galdu egiten da. Horrenbesterekin, nork bere hizkuntza galdu egiten du ez baita gai behar den erraztasunaz erabiltzeko; horren ondorioz, belaunaldi batetik besterako transmisioa eten egiten da. Har ditzagun eremu bi esan dudanaren argigarri.

A. LAGUNARTEA

Transmisioaren bigarren eremurik garrantzitsua da, familiaren esparrutik at. Kalera irteten garenean etxetik darogun hizkuntza darabilgu gure senitartekoekin, gure lagunekin, gure auzokoekin... baldin eta guk darabilgun hizkuntza beste guztiek darabilten bera bada. Bestela esanda: euskara oroegoilea den lekuetan bakarrik da euskara harreman-hizkuntza. Gurasoek, kuadrillako lagunek, euren artean erdaraz egiten badute, nahiz eta euren seme-alabei euskaraz egin, eredu jakin bat transmititzen dute: hizkuntza garrantzitsua erdara da, gurekin (umeekin) bakarrik dihardute euskaraz; halandaze, hurrengo belaunaldikoek euren artean ere erdaraz dihardute. Prestigioa da bigarren faktorea (gaitasuna lehenengoa baita).

Familiaren arloari buruz jardun dudanean esan dudanez, gaitasuna ezinbestekoa da hizkuntza batean jarduteko. Hiztunak hitz egiten du bere burua eroso topatzen duen hizkuntzan. Horri beste eragile bat ezarri behar diogu: prestigioa duen hizkuntzan hitz egitea giza nahia da. Eta bata bezala bestea arian-arian galtzen dira, haien galtzea ez

da bat-bateko gertaera. Egunean baino egunean errazago topatzen dugu eremu jakin batzuetan erdaraz aritzea, eta hortik gure barrenengo sentimenduak hizkuntza horretan esatera denbora-tartea dago, ez besterik. Prestigioarekin gauza bera jazotzen da: esan barik suertatzen den gertakizuna da. Inork ez du esaten “euskarak ez du erdarak adina prestigiorik”. Ez du esaten, baina euskal hiztunen buruan geroago eta sakonago dagoen jazoera da. Bestela, denda batera goazenean, eta berrogei urtetik beherako dendari bat topatzen dugunean, zergatik egiten dugu lehenengo berba erdaraz non gauden kontuan hartuz? Arrazoi bi egon daitezke: a) uste dugulako aurrean dugun horrek ez dakiela behar bezala euskaraz elkarrizketan jarduteko; edo b) hiri handietan (demagun) hizkuntza nagusia erdara denez gero, ez garelako ausartzen euskaraz egiten jaso dezakegun erantzuna gure gustukoa izango ez delakoan.

B. TEKNOLOGIA BERRIAK

Esparru hau ez da hasieran uste izan genuen pagotxa izan. Orduan uste genuen mugarik ez egotea abantaila zela euskararentzat. Hala izan balitz...! Gure alboetako erdarek ere ez dute mugarik, eta horrelakoetan tamainak, neurriak, badu ardurarik. Izan ere, euskararako erabil daitezkeen baliabideak eta gure alboetako erdaretarako erabil daitezkeenak ez dira erkatzeko modukoak. Edozein hardware edo software dela ere, batez ere gazteek darabiltzaten aplikazioak direla ere, horiek guztiak ez dira hizkuntzaren

arabera erabakitzen, ezpada aplikazio bakoitzak ematen dituen aukeren arabera. Hor euskara ez da garaile irten.

3. EUSKALDUN KONTZIENTEA ETA INKONTZIENTEA

Familia eta lagunartea botere publikoek edota epaileek eraginik ez duten eremuak dira, orduan, zergatik eskatzen diegu botere publikoei guk geure buruarentzat onartzen ez ditugun eskakizunak? Botere publikoek bakarrik ez dute euskararen iraupena ziurtatuko, epaileen eta beste eragile batzuek ez dute euskararen erabilera galaraziko. Alferrik da botere publikoen ahalegina, baldin eta guk geure agindupeko eremuetan euskaraz ez badihardugu.

Euskararen iraupena edo galera euskal hiztunon ahoetan dago. Une honetan bagara euskaldun kontzienteak eta inkontzienteak; batzuek euskaraz egin behar dutela aurretik pentsatu behar dute, eta beste batzuek, ostera, ez dute hori pentsatu behar, euskaraz egiten dutelako berba euren buruarekin eta hitz egiterakoan euskara berez-berez irteten zaie-eta. Euskaldun guztiok inkontzienteak izango ahal gara inoiz!



